



Zizurkilgo toponimia biltzen duen mapa aurkeztu dute

ILDOAK ▶ Bi alderdi jorratu dituzte: batetik, kartografia; eta, bestetik, toponimoak eta haien normalizazioa ▶ 4



Ezker-eskuin: Imanol Goikoetxea lanaren zuzendaria, toponimia bilketan parte hartu duten Joxin Azkue zizurkildarra, Marian Lazkano alkatea eta Mikel Gorrotxategi Euskaltzaindiako ordezkaria. I. GARCIA

TOLOSA ▶

Gipuzkoako Igeriketa Txapelketa, Usabalen

Bihar eta etzi jokatuko dute junior eta etorkizuneko mailakoek ▶ 3

IBARRA ▶

Alur dantza taldearen emanaldia, gaur, Belabietan

103 dantzari ariko dira ikuskizunean, Uzturpeko VI. Kultur Astearen baitan ▶ 6



Alurr-ekoak, entseguan. HITZA

LEITZA ▶

'Hazparneko Anderea' antzezlan, herritar talde batek eskainia

17 lagunek hartuko dute parte Monzonen lanean, bihar, zineman ▶ 7

TOLOSA ▶

Joseba Ormazabal eta Ramon Garate sarituko dituzte gaur

Euskal Mendizale Federazioak egingo duen ekitaldian omenduko dituzte ▶ 3



Joseba Ormazabal (ezkerrean) eta Ramon Garate. J. SAIZAR



ALEGIA ▶

AHT Gelditu! Elkarlanak deitutako batzarra

Bihar, 10:00etan, udaletxean ▶ 5

GUTUN@K ▶

AHTren aurka mugitzeko hainbat arrazoi

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Euskal Y bezala ezagutzen den Abiadura Handiko Trenaren (AHT) makroproiektua, nafar korredorearekin batera, halako azalera txiki eta menditasun, ez da Europako beste inongo herritan planteatzen. Ingurumenak ezin du (AHT) eragina bere gain hartu: berrera efektua, ikus-entzunezko eraso ikaragarria, lurren okupazioa, desregulazio hidrolagikoa, energia kontsumoaren igoera handia, hondakinentzako zaborte-giak, balio natural handiko ekosistemen kaltetzea...

Agintari ekonomikoek eta politikoez dituzten asmoak buroz ez dute zalantzarik uzten: Euskal Herria, Europako garraio fluxurik handienetakoa bilduko lukeen sakrifikatutako lurraldea bihurtu nahi dute. Eredua errotik jasanezina da, garraioen hazkunde esponentziala dakarrelako. Garraioaren hazkundera negoziotzat planteatzen duen azpiegitura, autopista, superportu, plataforma logistikoak eta abarri buruzko plan baten barruan txertatzen da Abiadura Handiko Trena, Euskal Herria akabatuz. Horregatik, praktikan, ez du kamioi bakar bat kenduko bideetatik. Komunikazio bideen kolapsoak jarraitu eta, gainera, larriagotu egingo da. AHTak urrunekoa gerturatu baina gertukoa urruntzen du. Azkarrago burutuko dute Madrildik Pariserako bidea, baina bidean zeharkatutako herriak (kalte handiak eraginez, batez ere nekazaritzan) ez ditu gerturatu. Ez du balio aldiriko ga-

rraiorako; hirietan bakarrik geldituko da eta, ondorioz, eskualde barruko joan-etorriak ez ditu beteko, hauek populazioaren eguneroko desplazamenduen %97 izan arren.

Baliabide publikoak garraio azpiegitura erraldoietan xahutzen dira (autopistak, AHT, superportuak, plataforma logistikoak...), bestelako ekonomia jardueretan, gizarte eta kultur ekintzetan behar-beharrezkoak diren bitartekoak eragotzita. Euskal Herrian, AHTren azpiegituran aurreikusten den gutxi gorabeherako 9.000 milioi euroko inbertsioarekin, populazio osoarentzako kalitatezko garraio publikoa finantzatu eta beste gizarte eskaera askori erantzun zekiokkeen.

Gogor salatu nahi dugu Madrilgo, Gasteizko eta Iruñeko gobernuak euren artean kudeaketa eta negozioa banatu asmoz Abiadura Handiko Trena eraikitzen hasteko lanak aurtun hasteko lortu duten akordioa. Argi eta garbi erakusten digute hiru administrazioek inposaketa eta lurraldearen suntsiketaren alde egiten dutela.

Guztiagatik, deialdi berezi bat egin nahi diegu AHTren aurka dauden herritarrei, sektore sozial, sindikal eta politikoei borroka honetan inplikazioa handitzeko eta indarrak biltzeko. Fase garrantzitsu honetan mobilizazioa indartzea eta benetako informazioa gizarteratzea erronka bihurtu nahi dugu. Hau dela eta, urtarrilaren 28an, bihar, Alegiako udaletxean, 10:00etatik aurrera burutuko dugun asanbladan parte hartzeko eta jende gehien bil dadin deia zabalten dugu.

DAVID MIANGOLARRA, ARANTXA GABIRONDO ▶ TOLOSALDEKO AHT GELDITU! ELKARLANEKO KIDEAK

TOLOSA ▶ AZOKA

Urteko lehen Azoka Berezia, zuhaitzarena

Zerkausiko berritze lanak direla-eta San Frantzisko ibilbidean egingo dute Zuhaitz Egunaren XI. edizioa, bihar



Aurreko urteetan Trianguloan egin bada ere, aurtun San Frantziskon egingo dute Zuhaitz Eguna. J. ASTIBIA

NOELIA LATABURU

Ez dira gutxi ez, urte bukaerarako Tolosak batzen dituen azoka bereziak. Hala, bihar izango du 2006. urteko lehen-dabizkoa, XI. edizioa heldu dena, gainera, Zuhaitz Eguna, hain zuzen ere. Aurtengoan, Zerkausiko berritze lanak direla eta, San Frantzisko ibilbidean egingo dute azoka berezi hau. Leku aldaketa izangatik,

mintegiek ez dute hutsik egingo; eta mintegi berriak ere izango dira hamaikagarren aldiz egiten den egun honetan, zuhaitz landareak saltzeko prest. 09:30ean egingo dute Zuhaitz Egunaren irekiera ofiziala. Horretarako, Tolosako alkate Jokin Bildarratz, Garapen Ekonomiko, Turismo eta Enplegu sailko lehendakari Josemi Gomez Elosegi, Fecobako lehendakari Jose Ignacio Telleria eta Kapituluaren parte hartuko duten 5 kofradietako lehendakariak izango dira bertan.

20 mintegi izango dira era guztietako produktuak ekariz: fruta arbolak, baso landareak, landare usaingarriak, bonsaiak... Aukera zabala, beraz, erosleek mesederako. Nola ez, aipamen berezia merezi dute astero Atadi kalean egoten diren mintegiek: Arakama mintegia (Zegama), Dorronsoro mintegia (Ataun), Garitaonandia mintegia (Zaldibar), Lasa mintegia (Albiztur), Mendia mintegia (Beasain) eta Urkizu mintegia (Anoeta). Bihar hauek guztiak ere San Frantzisko ibilbidean kokatuko dituzte Azoka Bereziaren parte hartuz. Tolosako Udaletik adierazi dutenez, egun hau egokia da «zuhaitz mota ugari ikusi eta erostaz gain, haiei buruzko zeh-

Zerkausia, berritzen

Zerkausia berritze eta Solana kalea urbanizatzeko lanak direla-eta segurtasun-hesia jarri dute inguruan. Hesi honek, batetik, galtzada zati bat hartu du Solana kalean eta, bestetik, Zumalakarregi kalearen aldetik (planetarioa dagoen aldetik) dagoen oinezkoen guneko zati bat. Honek eragin zuzena izango du, bada, larunbatero izaten den azokan; izan ere, lanak amaitu bitartean, Trianguloan ezarriko dute azoka.

Segurtasun hesiak galtzada estutzen duenez, trafikoa arazoak eta ibilgailuen eta oinezkoen arteko arazoak ekidin ahal izateko, Solana kaleak lehengoaz bestelako noranzkoa izango du eta Pablo Gorosabel kaletik Alde Zaharrera sartzeko bide nagusia Atadi kaletik barrena izango da. ◀

haztasunak ere galdetzeko». Izan ere, «gustura erantzuten diete arduradunek bertaratu-takoen kezka eta galderei».

XI.
zuhaitz
eguna

Urtarrilak 28, TOLOSA
San Frantzisko ibilbidean

Euskadi

MENDIA ▶



Gaur egingo dute sari banaketa Galdakaon. Argazkian, iaz Leidorren eginikoa. NOELIA LATABURU

Garate eta Ormazabal sarituko dituzte gaur

Euskal Mendizale Federazioak Galdakaon egingo duen sari banaketan jasoko dute aipamena bi mendizale tolosarrek

NOELIA LATABURU

Beste urte batez, Euskal Mendizale Federazioak aurreko urteko mendizaleak omenduko ditu. Lan mardula izan du Federazioak guztien artean aukeratu behar izaterakoan, baina azkenean zerrenda ixtea lortu du. Hautatuen artean bada gure eskualdeko ordezkariak: Ramon Garate eta Joseba Ormazabal tolosarrak.

Ramon Garate Euskal Mendi Federazioko medikuak Antxon Bandres saria jasoko du. «Garateren telefonoa 24 orduz egon da funtzionamenduan, eta euskaldun lesionatuen erreferente izan da beti». Honengatik guztiagatik «merezitako» omenaldia jasoko du.

Bestetik, eskiko alorrean Joseba Ormazabalek jasoko du Andres de Regil saria. «etxean nahiz nazioartekoetan eskura-

EUSKAL MENDIZALEEI SARIAK ▶ SARIDUNAK

2005. urteko saridunak aukeratu ditu dagoeneko Euskal Mendizale Federazioak. Honakoak dira irabazleak:

Ramon Garate. Antxon Bandres saria.

Joseba Ormazabal Azpiroz. Andres de Regil saria.

Irati Anda eta David

Gambus. Angel Sopeña saria.

Iker Pou eta Eneko Pou.

Andres Espinosa saria.

Vidal Olabarria Solauin.

Shebe Peña saria.

tutako emaitza onen ondorioz».

Sari banaketa gaur egingo dute. Ganguren taldeak antolatuta, Galdakaon. Aukeraketa egiterkoan, bi ardatz hartu ditu aintzat federazioak: «Urte ho-

Zuhaitz Ezpeleta Iturbe.

Mendi Lasterketetako

Jardunaldi onenari saria.

Juan Ignacio Lorente eta

Angel Callejo Rosen. Mendi

lbilbide onenari saria.

Eusko Jaurilaritzako Turismo

Azpisaila eta Maria del Koro

Garmendia. Euskal

Mendizaletasunaren Lagunak

saria.

BBK eta Imajina eta

Komunikazioa. Mendi

jardueren babesle onenari

saria.

netan maila handia lortu duten eskalatzaile zein alpinistak eta, bestetik, jada beteranoak direnak eta azken urteetan egindako lanaren ondorioz euskal mendizaletasunaren historia izatera pasatu direnak».

IGERIKETA ▶

Gipuzkoako Txapelketa bihar eta etzi, Usabalen

Junior eta etorkizuneko mailak ariko dira, Tolosaldea IKT eta Federazioak antolatuta



Argazkian, iazko Gipuzkoako Txapelketako podioa. HITZA

N. LATABURU

Igeriketa zaletuak zorioneko dira orainoan; izan ere, bihar eta etzi artean, Igeriketako Gipuzkoako junior eta etorkizuneko Txapelketa jokatu da Usabal kiroldegian bertan. Tolosaldea IKT izango da, Federazioaren laguntzarekin batera, txapelketa antolatuko duena.

Bertara Gipuzkoako 250 igerilari inguru etorriko dira. Hauen artean, «estatu mailan punta-puntan dabilzan Ivan Agirre, Jon Andreu, Paula Cervantes, Iluna Gorbea, Omar Urbietta, Maddalen Olarra...». Eta, hauekin batera, Tolosako igerilari esangratsuenak: Loreto Azurza nesketan eta Jon Azpiazu mutiletan.

Igerilari hauek martxoaren 11 eta 12an jokatuko den Espainiako Koparako prestaketa egiten ari dira. Txapelketa honen 2. mailako lehiaketa Tolosan izango da, eta bertan Gipuzkoako igerilariak osatzen duten Bardulia IKT taldeare-

kin hartuko dute parte. Bardulia-koek bai nesketan bai eta mutiletan ere Espainiako 1. mailara igotzeko «aukera daukate eta konpetizio polita» izango delakoan daude.

Bestalde, lehiaketetan laguntza eskaintzen duten gurasoei eskerrak eman dizkiete IKT-koek. «Pentsatu daiteke gurasoek lagunduko ez balute igeriketak eta, hobe esanda, igeriketa txapelketek ez luketela etorkizunik izango», kirol honetan txapelketa bat antolatzeko beste edozein kirolatan baino laguntzaile gehiago behar baita.

«Deialdia zaletu guztiei»

Tolosaldeko IKT-koek Tolosako eta inguruko zaletu guztiak animatu nahi dituzte, biharkoan, goiz eta arratsaldean, eta etzi goizean Gipuzkoako Txapelketa hau ikustera joan daitezen Usabalera eta, bien bitartean, Gipuzkoan igerilariak «egon badaudela» baieztatzeko.

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

ZIZURKIL ▶ MAPA TOPONIMIKOIA



Imanol Goikoetxea, Joxin Azkue, Marian Lazkano eta Mikel Gorrotxategi, Zizurkilgo mapa toponimikoari begira. I. GARCIA

Herriko toponimia biltzen duen mapa aurkeztu dute

Lanaren zuzendari Imanol Goikoetxeak herritar talde batek toponimia jasotzen egindako lana nabarmendu zuen

IMANOL GARCIA

Zizurkilgo mapa eta toponimia aurkeztu zuten herenegun arratsaldean Atxulondo kultur etxean. Bertan izan ziren Imanol Goikoetxea lanaren zuzendaria, toponimia bilketan aritu den Joxin Azkue herritarra eta Marian Lazkano alkatea. Goikoetxeak azaldu zuenez, mapa egiterakoan berrietasun bat nabarmendu behar da: «Zizurkil-dar gazte talde batek toponimia bilketa egin du eta hori oso aberasgarria izan da». Geografo donostiarrak egun herrietan gertatzen den arazoa izan zuen

hizpide: «Akulturazio bat izaten da. Lehen jende guztia oinez ibiltzen zen eta lekuen izenak zekizkien. Orain autoz ibiltzen gara eta ez dakigu nondik pasatzen garen. Ezagutza hori guztia galtzen doa».

Herritar nagusiek ahoz jaso eta gordetzen duten altxor hori herriko gazteek jasotzearen garrantzia azpimarratu zuen Goikoetxeak: «Lan honetan lortu dena ez da bakarrik toponimia jasotzea, baizik herriko gazte talde batek hiltzeko zegoen ezagutza hori bizirik mantentzea».

Joxin Azkue zizurkildarrak toponimia bilketan parte hartu du eta «herria gora eta behe-ra ibiltzea gozamina eta atsegina izan da», azaldu zuen aurkezpenean. Projektua nola gauzatu zen aipatu zuen: «Hausnarketa batekin hasi ginen. Ikusi genuen baserrietara gutunak iristen zirenean ez zirela baserrien izenekin igortzen, baizik 'diseminado 273' eta horrelakoekin. Baserriak ez direla existitzen zirudien».

Azkuek zioenez, «gure au-

rrekoen erdia dakigu, eta gure seme-alabek oraindik gutxiago. Talde bat osatu eta Ainhoa Larrea Udaleko teknikariak burua berotu zigan eta Imanol Goikoetxearekin elkartu ginen, eta horrela hasi ginen. Asko ikasi dugu, 25 urtetan baino gehiago».

Toponimoen normalizazioa

Bi alderdi zehaztu zituen lanaren zuzendariak. Alde batetik kartografia, eta beste aldetik toponimoak eta beren normalizazioa. Azken ezaugarria izan zuen hizpide eta Mikel Gorrotxategi —entzulegoaren artean izan zen— Euskaltzaindiako ordezkariaren laguntza eskertu zuen lana burutzerakoan.

«Hitz egiterakoan alferkeriara jotzen dugu», zioen Goikoetxeak. «Idazterakoan, ordea, hizkuntza normalizatua erabiltzen dugu. Toponimoetan berdin gertatzen da. Ahozko erabileraren dago, baina gero idazteko forma landu bat dago». Horren harira, toponimoaren forma normalizatua lortzeko

egin behar den artxibo-lana azpimarratu zuen. «Dokumentuetan mendez mende nola erabili den kontsulta egin behar da eta gero alderatu ahozko erabilerarekin. Horrela, guk proposamenak egin ditugu eta gero Euskaltzaindiara igorri». Izan ere, Zizurkilgo mapa horrek Euskaltzaindiak onetsitako toponimia darama.

Normalizazio horrek bere aldatetak edo zuzenketak ekartzen ditu, eta Goikoetxeak bat aipatu zuen bereziki: «San Millan parrokiari Done Emiliaga deitzea proposatu da». Honen harira, Gasteizko adibidea azaldu zuen. «Orain 30 urte inorrek ez zuen Gasteiz hitza erabiltzen. Egun, barneratuta dago izen hori. Done Emiliagarekin berdina gertatuko da», zioen geografo donostiarrak.

Beste hainbat toponimia ere aldatu dira edo, nolabait esateko, bere hasierako forma berreskuratu dute. Ahozko erabilerak hitzak aldatzen dituztela nabarmendu zuten maparen aurkezleek. «Leku izenak ahoz orain arte esan diren bezala esango ditugu, baina komeni da jakitea nola den bere forma normalizatua eta idazterakoan forma hori erabili beharko litzateke».

Mapa toponimikoa egin dutenek eskerrak eman zizkieten lekuen izenak berreskuratzen lagundu dieten herritar edadetei. «Asko erraztu dute lana eta lekuen izenen ahoz erabilerari jaso ahal izan dugu». Bestalde, Marian Lazkano alkateak azaldu zuenez, herriko mapa berria biztanle guztiei helaraziko diete postaz.

AGENDA 21 ▶

Ernioaldekoen diagnostikoari ekarpenak

Udaltalde 21 Ernioaldea osatzen duten herrietako (Aduña, Asteasu, Irura, Hernialde, Villabona eta Zizurkil) biztanleek beren herriko iraunkortasun diagnostikoaren zirraborra eskuratu eta ekarpenak egiteko aukera dute, bai dokumentu osoa bai horren laburpena eta ondorioak. Ekarpeneak, idatziz eta otsailak 10 arte, Udaltalde 21eko helbide elektronikoko edo postalera bidali beharko dira: udaltalde21@villabona.net edo Villabonako Udala (Itziar Eizagirre Udaltalde 21 Ernioaldeko koordinatzailearen izenean), Errebo-teko enparantza, z/g, 20.150, Villabona.

ALKIZA ▶

Herri batzarra egingo dute gaur Kultur Etxean

Herritarren lehenetako ezagutzeko herri batzarra egingo dute gaur Kultur Etxean, 21:00etan. Tokiko Agenda 21 prozesuaren baitan bigarren herri batzarra izango da, uztailaren 10an herriko diagnostikoa lantzeko lehengo, hain zuzen ere. Orduz geroztik, eta herritarren ekarpenak abiapuntuz hartuta, herriko ekintza planaren lehen zirraborra definitu dira. «Aurreko faseetan udal teknikari eta udal ordezkariekin landu dira planak eta orain herritarren txanda da», azaldu dute bileraren antolatzaileek.

ADUNA ▶

Azti-begia elkarteko bazkide egiteko aukera

Azti-begia elkarteko bazkide egiteko deialdia zabaldu dute. Bihar izango da horretarako aukera Adunan, udal-lehenetako ondano ipiniko duten mahaian, 12:00etatik 15:00etara. 4.500 behar dituztela azaldu dute Info 7 irratia martxan jartzen ari den elkartekoek: «Ezinezbestea dugu herritarren babesa eta atxikimendua. Botere ekonomikoak eta politikoak ez ditugu lagun. Herritarrei eta herri sektoreei esker biziko gara, eta horregatik eskatzen dugu Azti-begiaren bazkide egin zaitezten».

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Inkesta. Urtarrila maldan gora egiten den hilabetea omen da. Nola ari zaizu egiten zuri? Orain arte jasotako emaitzak: oso gogorra, %8a; gogorra, %9a; ohikoa, %15a; arina, %7a; oso arina, %62a.

IKAZTEGIETA ▶ HIRIGINTZA

NEREA URBIZU

Ikaztegiatiko kiroldegiko teilatua oso egoera txarrean dago aspaldidanik. Eraikuntzaren bigarren soilaruko itokinak gerroz eta handiagoak dira: mediku gelarako sarbidea sarritan urez gainezka egoten da, edonor erori eta min hartzeko arriskuan. Orain arte, zerrautsa barreiatzen aritu dira lurrean, arriskua txikitzeko asmoz. Bestalde, bigarren solairuan eskaintzen diren beste zerbitzu batzuk ere kaltetuta daude: KZguneko ordenadoreak busti eta hondatu egiten dira, eta liburutegiko sabaia ere erortzeko zorian dago.

Egoera «jasanezina» da, erabiltzaileen eta Udalaren aburuz, eta segurtasun neurriengatik guztiz beharrezkoa ikusi dute teilatuaren berritzea. Lan hauek kontratatu baino lehen finantzaketa iturriak bilatu behar izan ditu Udalak. Behin aurkitu ondoren, obrek irailerrako amaituta eta ordainduta egon behar dute. Beraz, haurrek ikasturtea jolastoki berriarekin hasiko lukete.

Lan hauek «ez datoz herrira oso une egokian», ikasturte erdian hartu baitute erabakia: eskolak, besteak beste, oztopak izango ditu bere jarduera normaltasunez jarraitzeko, haurrek ez dute jolaslekuri izango... Dena dela, hilabete batez, edo gehienez, bi hilabeteko kontua izanen dela ziurtatu du Udak. Gainera, egunak ez dira hain luzeak, eta denbora gutxien ere urte sasoi honetan pasatzen da kalean, honen ondoren, dena bere horretara itzuliko da, apirila aldera, alegia. Beharrezkoak diren lan hauek teiltatua erabat desarmatzea eskatzen dute. Otsailaren 6an hasiko dira, eta gehienez ere martxoaren 26ra bitarte luzatuko dira.

Epe honen barne ezinezkoa izango da honako leku hauek erabiltzea: pilotalekua, KZgunea, liburutegia, mediku gela eta gizarte langilearen bulegoa. Alegiako mediku zerbitzua erabili beharko dute ikaztegiatarrak epe horretan, herrian erabiltzen zuten egutegi eta ordutegi berean beti ere —bertako telefonoa honakoa da: 943 65 32 12—. Alegiako gizarte langile zerbitzua ere erabili beharko dute epe horretan, betiko ordutegi eta egutegian —bertako telefonoa 943 65 47 68a da—.

Beraz, erabili ahal izango diren toki edo zerbitzuak hauek lirateke: gimnasioa, dutxak, aldagelak, jangela eta haurtzaindegia.

Jangela erabiltzen dutenek bertara iristeko, «Coca-Cola makinatik aurrera bidea itxita

Kiroldegian dauden zerbitzu batzuk ezin izango dira erabili

Otsailaren 6an hasiko dituzte obrak: medikuaren zerbitzua, besteak beste, Alegian jaso ahal izango dute herritarrek



Medikuarengana joateko itxarongelak honako itxura dauka egun. N. URBIZU

egongo denez, gimnasia-joan beharko dira, eta barruan dagoen eskuineko atetik igaro beharko da hara iritsi ahal izateko).

Laster hasiko den hirigintza obra honekin kirol eta kultur hornikutzak berrituta geldituko direla adierazi dute, eta erabiltzaile guztien segurtasuna bermatuta egongo dela.

Abuztuko ekaitza

Bi urte inguru daramatzate arazoak, baina larrienak, dirudenez, lehengo urteko abuztuan dute jatorria. Izan ere, ekaitz izugarria egon zen, eta liburutegiko eta KZguneko sabaia larriki minduta geratu ziren. Hori izan zen obrak egiten hasteko arrazoari garrantzitsue-

netako bat. Kiroldegia egin zenetik teiltatua inoiz obrarik ez dela egin azaldu dute udal arduradunek.

Bestalde, eliza ondoan zeuduen haurrentzako jolasak, kulunkak eta bestelakoak ere behin-behineko kiroldegia-aren ondoan ipini dituzte, plaza egiteko lanek dirauten bitartean.

ALEGIA ▶

AHT Gelditu! Elkarlana taldearen deialdia

Alegian elkartuko dira, bihar, hitzaldia eta batzarra egiteko, udaletxean

N. URBIZU

AHT Gelditu! Elkarlanak deialdi berezia egin die Abiadura Handiko Trenaren aurka dauden herritarrei. «sektore sozial, sindikal nahiz politikoei borroka honetan inplikazioa handitzeko eta indarrak biltzeko». Fase «garrantzitsu» honetan mobilizazioa indartzea eta benetako informazioa gizarteratzea «erromka» bihurtu nahi dute.

Hau dela eta, bihar, Alegiako udaletxean 10:00etan burutuko duten asanbladan parte hartzeko deia zabalduta dute.

ALEGIA ▶

Baratza kooperatibari buruzko hitzaldia

Astehenean, 19:30etan, Kultur Etxean, baratza kooperatiba ekologikoari buruzko hitzaldi informatiboa eskainiko dute.

AMEZKETA ▶

Euskara Elkartearen bilera

Gaur, 18:30ean, balio anitzeko gelan Euskara Elkarteari beste bilera bat egingo du. Bertan hainbat gai jorratu eta egitasmoak aurkeztuko dituzte. Bilera irekia da.

Amestu izan duzun...

MERKEALDIA

Premier koltxoia
Gama altuko koltxoia gerrialdeko errefortzuarekin

%30 erabiliko DESKONTUA

Lizardi plaza, 2
20400 Tolosa
Tel.: 943 652 901

Peña y Goñi, 16
20001 Donostia
Tel.: 943 320 358

Tolosa etorbidea, 19
20018 Donostia
Tel.: 943 312 784

www.loadiak.com

Bezero arreta telefonoa: 922 560 221
12 hilabeterainoko finantziakzioa interesik gabe.
Kate aintzindaria atsedean arloan 192 DENDEKIN.

TIENDAS **bede**
sueños de calidad
www.beds.es

Kargorik gabeko bidaiak eta beste zerbitzuak ere eskaintzen dituzte. Informazio gehiago lortzeko, deitu 922 560 221.

IBARRA ▶ KULTURA

Alurren dantzaldia gaur Belabietan

22:00etan hasiko da 103 dantzarik parte hartuko duten emanaldia; 20:00etan Joneren kontzertua izango da



Estreinakoz ariko dira hainbat dantzari gaurko saioan. I. TERRADILLOS



Zazpi talde desberdinak dantzariak bilduko dira gaur. HITZA



Koreografia eta dantza berriak eskainiko dituzte. HITZA

IÑIGO TERRADILLOS

Alurr dantza taldeak gaur, 22:00etan, emanaldi berezia eskainiko du Belabieta kiroldegian. Hain zuzen ere, 103 dantzari ariko dira eta Iruene Etxebeste, Itxaro Etxebeste, Jon Garmendia, Xabi Zubeldia, Haritz Sudupe eta Arkaitz Uranga musikariek lagunduta dantza nahiz koreografia berriak eta ohikoak eskainiko dituzte.

Zazpi talde bilduko dira orotara, mutilen taldea, dantza eskolako bi talde, beteranoen taldea, 8-10, 10-12 eta 13-16 urte bitartekoak, eta azken 3 talde horietako dantzari batzuren zatitza jendaurreko lehendabiziko saioa izango da gaurkoa. Hala ere, azaldu dute lasai eta gogotsu daudela gaurko saiorako, eta dena ongi ateratzea espero dutela. Bestalde, gaineratu dute 4 edo 5 egun egon direla bereziki gaurko dantzak prestatzen. Eskainiko dituzten dantzei eta koreografiegi dagokienez, 8-10 urtekoek *Lanz* eta *Xapeloat* dantzatuko dute; 10-12 urtekoek *Xapeloat* eta *Salto-kakoa*; 13-16, *Arin-arin* berria, Ibarra *Bazinen bazara*, *Arin-arina*, *Banakoa* eta *Obalao*; mutilek *Ezpatadantza* eta *Txotxongilo*; dantza eskolakoek *Plazara*, *Kaxarranka*, *Uztai*, *Arratia* eta *Baga-biga* eta beteranoei *Makil-jokoa*, *Paloteados*, *Bok-spok*, *Fandango* eta *Zortzikoa*.

Dantzaren aurretik, musika

Dantza emanaldia Uzturpe ikastolaren VI. Kultur Astearen baitan antolatu dute. Halaber, emanaldiaren aurretik, 20:00etan, Jone bakarlariaren kontzertua izango da. Kultur Etxean. Herritar guztiak gonbidatuta daudela azaldu dute antolatzaileek.

IBARRA ▶

Santa Agedan parte hartzeko deialdia

Hauspoa Kultur Elkarteak otsailaren 4an Santa Ageda eskea antolatu du, eta entseguak hilaren 31n eta otsailaren 2an, 20:00etan, udaletxearen azpialdean egingo dituztela jakinarazi dute. Bertan parte hartu nahi dutenek herriko elkarteetan nahiz ohiko tabernetan jarri dituzten zerrendetan izena emateko aukera izango dute. Horretarako azken eguna gaur izango da. Hauspoak parte hartzeri animatu nahi ditu herritar guztiak.

GAZTELU ▶

6 etxebizitza tasatuetan izen-ematea

Hilaren 14an ireki zuten Osingoien 6 etxebizitza tasatuetan izen emateko epea, eta egun horretatik aurrera 20 eguneko tartea egongo da izena eman ahal izateko. Halaber, ondorengo baldintzak bete behar dira: 18 urte gorakoa izatea, herrian bertan erroldatuta egotea, 12.000 euroko behin-behineko fidantza ordaintzea, eskatzaileek 35.000 euro edo gehiagokoko diru sarrerak izatea, eta ez izatea beste etxebizitzarik jabeagoan.

GIZARTEA ▶



Iragan igandean bota zuen ehiztari koadrilak basurdea. HITZA

150 kiloko basurdea ehizatu dute

Orexako eta Lizartzako ehiztari koadrilak pasa den igandean, hilaren 22an egin zuen basurde uxaldian «izugarrizko» animalia ehizatzekeo parada izan zuen. Baskulan 150 kilo pisatu zituen basurde apoa bota zuen koadrila horretako ehiztari Migel Imazek. «Sekula harrapatu dudun bitxorik handiena, pentsa, haginak 22 zentimetro ingurukoak zituen, eta bere lekutik ateratzen ziren», azaldu du ehiztari lizartzarrak.

iragarki laburrak ▶

LANA

Gidaria. Gidaria behar da ADR-arekin, Espainian eta Hego Euskal Herrian zeharreko garraiorako. Lan finkorako aukera handiak. Deitu 607 58 41 39 telefono zenbakira.

Ileapaindegia. Ileapaindegia

irekitzeko bazkidea behar dut. Interesatuak deitu 617 57 91 46 telefono zenbakira.

Iturgina. Iturgin lanetarako laguntzaile behar da. Interesatuak deitu 656 41 68 08 telefono zenbakira.

Sukaldaria. Asteburuetarako

sukaldaria behar da Tolosaldeko taberna baterako. Interesatuak deitu 677 32 99 34 telefono zenbakira.

SALGAI

Tolosa. Lokala salgai Laskorain kalean. Interesatuak deitu 645 72 83 52 telefono zenbakira.

LEITZA ▶

Beste bi lekutan sartu dira lapurrak berriro

Ihoteetako asteburu horretan, ez jakin noiz zehazki, udaletxean sartu dira oraingoan

J. ASTIBIA

Lapurrak sartu dira udaletxean igaro berri den asteburu horretako egunen batean: udal bulegoetan eta IKA euskaltegian atek hautsi eta barrenean ibiliak zirela oharatu, astelehenean oharatu ziren, baina ez jakin noiz.

Ostiraletik asteartera arte itxita zeuden udal bulegoak; euskaltegian jai zuten. Ihote egunak ziren eta horretaz baliatuta edo, udaletxean sartu ziren. Ateak hautsi eta barrenean ibiliak zeuden, baina eraman, ez omen zuten deus egin, ez eta dirurik ere, egiaz-tatu zuten.

TELEFONOAK ▶

**Larrialdiak. ((112))
Osasuna.**

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion Klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

- ▶ **DYA:** 672536
- ▶ **Gurutze Gorria:** 674888
- ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
- ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe Tolosa: 652889
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitza autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurramendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

LEITZA ▶ KULTURA

Herritar talde baten eskutik 'Hazparneko Anderea' obra ikusgai

17 lagunek parte hartzen dute Monzonen antzerkia egiten, Lur Korta zuzendariarekin; bihar, 19:30ean, zineman

JAIONE ASTIBIA

Hazparneko Anderea, horixe da Leitzako Txinparta antzerki taldeak jendaurrean aurrerako aldiz agertzeko aukeratu duen antzerki lana. Eta hasi eta buka Leitzako herritarrez eraturt dagoen talde honek bihar, larunbata, egingen du estreineko saioa, herriko zinema arteoan, 19:30ean.

Eszenatokira 17 aktore atarako dira, herriko jendea, honen guztiaren koordinazio lanetan ari diren lagunek antolatuta zuten antzerki ikastaroan izena eman zutenak; Aralar musika eskolako ikasleen esku egonen da musikaren arloa; eszenografia Okille tailerrak egindakoa da; guztiak pixkanaka Txinparta antzerki taldea eratu eta osatu dute. Eta beren lehendabiziko antzerki lana eszenaratuko dute.

Lan honetako zuzendaria Lur Korta oartzuarra dute, antzerkiaren arloan eskarmentuko laguna, ipuinkontalaritzan ez ezik antzerkian ere lan egiten duena izaki, Iruñeko bi tal-



Lur Korta zuzendaria. HITZA

detan, haurrentzako Trokolo-n eta helduentzako Bele bizi taldeetan, hain zuzen ere.

Kontuak kontu, urtebete daramate antzerkia egiten. Halanaka Txinparta antzerki taldea eratu eta osatu dute. Eta beren lehendabiziko antzerki lana eszenaratuko dute. Lan honetako zuzendaria Lur Korta oartzuarra dute, antzerkiaren arloan eskarmentuko laguna, ipuinkontalaritzan ez ezik antzerkian ere lan egiten duena izaki, Iruñeko bi tal-

Ez omen zekiten askorik, baina batek irakurri berria zuen *Hazparneko Anderea* lana aurkeztu zuen taldean: hasteko luze samarra, beste euskalki batean idatzitakoa izanik zail samarra izan zitekeela iruditu zitzaizkien, baina «moldaketa batzuk egin dizkiogu, laburtu dugu eta hizkera ere gurea jarri diogu, Monzonek barkatuko al digu, eta aurrera egitea erabaki genuen eta lanean hasi ginen», azaldu zuten. Ez zutela aurreratzen ikusita, Euskara Zerbitzuak profesional baten aholkularitza izatea ahalbidetu zien, Lur Korta zuzendaria, eta ordutik, astero elkartu dira —horixe egin omen zaie nekezena, kide guztiak batu eta ordutegiak zehaztea— eta «pausoz pauso joanez, gogotsu», egin dute lan: «Aktore lanean, arropak prestatzen, eszenografia egiten, soinua eta argiaren kontuak, koordinazioa... Denok osatzen dugu taldea», zehaztu zuten. Ikaragarri gus-tura aritu omen dira, «orain egunetik egunera urdurialdi bagoaude ere», gehituz.

IKASTAROAK ▶



ANTZERKIA ▶



Hazparneko Anderea. HITZA

HAZPARNEKO ANDEREA**Egilea.** Telesforo Monzon.**Zuzendaria.** Lur Korta.**Taldea.** Txinparta taldea.**Errepartoa.** Maite Perurena, Juani Barriola, Bihotz Astibia, Brigida Azpiroz, Gloria Iruiria, Martin Astibia, Ibon Azpiroz, Amaia Vicente, Koldo Lebron, Jose Mari Hernandezena, Jose Luis Huarte, Juan Mari Zabaleta, Orkatx Erbiti eta Jokin, Olaia, Nahia eta Maitane haurrak.**Soinulariak.** Aralar musika eskola.**Eszenografia.** Okille tailerra.**Koordinazioa.** Ibarxo, Pili, Merxe, Mila, Arantxa, Mila E., Tomax.

Telesforo Monzonek idatzitako bezala, *Hazparneko Anderea* baten familia eta inguruko pertsonaien gorabeherak antzeztuko dituzte bihar herritar hauek: sosa, maitasuna, konfiantzia... Ikusgarria, ziur!!

Informatikako moduluarekin hasi dira jada

J. Astibia ▶ Cederna-Garalur garapen agentziaren eskutik, autoenplegua sustatzeko asmoz, *Ekin aurretik* programaren baitan, lau modulu egiteko doaz zonaldeko jendearekin. Herenegun hasi ziren informatikako eskolekin —irudian, parte-hartzaile batzuk Irantzu Larraza irakaslearen azalpenari adi— eta otsailaren 1a bitartean «negozio bat martxan jartzeko beharrezkoak diren gaitasunak lantzeko» oinarritako tailerrak ematen dituzte banaz beste bertan parte hartzen ari diren 15 lagunek. Jakitera eman dutenez, interesik bago, ikastaroak errepikatuko omen lituzkete. J. ASTIBIA



'Haize oihalak'

TOLOSA ▶ Pello Ramirezek kontzertua eskainiko du gaur Aranburu Jauregian; Juantxo Zeberio tolosarra ere ariko da

ERREDAKZIOA

Pello Ramirez zuzenean entzuteko aukera izango da gaur Tolosan. Ordiziarrek kontzertu akustikoa eskainiko du, 20:00etan, Aranburu Jauregian.

Iazko martxoan kaleratu zuten Ramirezek *Haize Oihalak* izeneko bere lehen lana. Aurretik, baina, bada ezaguna ordiziarra, hainbat musikari handirekin jotzen aritu delako; besteak beste, Benito Lertxundi, Xabier Lete, Dulce Pontes, Mikel Urdangarin, Niko Etxart, Iñaki Salvador eta Kenzapzi taldea.

«Lehen disko honetan, konposatzaile handia ere badela erakutsi digu», esan dute adituek bere lanari buruz.

Biolontxeloa, akordeoia eta pianoa joz «lortutako sonoritatea islatu» nahi izan du Ramirezek bere estreinako lan honetan. Hamalau kantuz osatua dago diskoa, eta berak sortu eta interpretatu ditu obra guztiak. Batzuetarako, dena den, Juantxo Zeberio tolosarraren eta Luis Alberto Aranbururen laguntza jaso du pianoetan.

Hain zuzen ere, zuzeneko emanaldietan Juantxo Zeberio



Pello Ramirez musikari ordiziarra. HITZA

tolosarra izaten du bidelagun pianoan. Juan Joxe Erauskin eta Maider Zapirain ere aritzen dira, biolontxeloetan. Bestee-

tan bezala, Pello Ramirezek berak akordeoia eta biolontxeloa joko ditu Aranburu Jauregiko gaurko emanaldian.

AGENDA ▶

DANTZA

Ibarra. Alurr dantza taldea. 22:30ean, kiroldegian. Uzturperen VI. Kultur Astean.

DEIALDIAK

Amezketeta. Euskara Elkartearen bilera. 18:30ean, balio anitzeko gelan.
Ibarra. Sokatirarako afizioa dutenentzat, bilera. 19:30ean, kiroldegian.
Tolosaldea. Euskal preso politikoaren eskubideen defentsan, elkarretaratzeak: 19:30ean, Amezketan (Abaltzisketako bidegurutzean) eta Alegian, Anoetan, Ibarra eta Tolosan, ohiko lekuetan; 20:00etan, Adunan, Asteasun, Ikaztegietan, Leiztan, Lizartzan, Villabonan eta Zizurkilan, ohiko lekuetan.
Villabona. Biltoki jubilatuen elkartearen urteko batzarra. 17:30ean lehen deialdia eta 18:00etan bigarrena.

ERAKUSKETAK

Alegia. Ana Ansorenaren zeramika lanak, Jubilatuen tabernan.
Hernalde. Anselmo Elizalde, Ostatu tabernan.
Tolosa. Luis Mari Nuñezen lanak, Aranburu Jauregian.
Tolosa. Alejandro Tapiaren koadroak, Aranburun.
Tolosa. Jose Luis Albizuren margolanak, Lanbroan.

Tolosa. Txaro Medranoren artelanak, Saikin tabernan.

HITZALDIAK

Tolosa. Yoga elkarteak antolatuta, *El arte de ser uno mismo* izeneko hitzaldia. 20:00etan, Kultur Etxean.

INAUETRIAK

Areso. 15:30ean, eskolarteko kalejira; 21:00etan, afaria Lagun Arteakok.

MUSIKA

Ibarra. Jone bakarlari anoetarraren kontzertua. 20:00etan, Kultur Etxean. Uzturperen VI. Kultur Astean.
Tolosa. Areatan eta Desoreka. 22:30ean, Bonberenean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Ibarra. Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.
Leizaola. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.

IRRATIA

Txolarre Irratia (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotza* magazina.
21:00-22:00. *Zaharrak Berri*, Hala Bedi irratiaren saioa, Arrosa Irrati Elkoizpen Zentroaren eskutik.
22:00-23:00. *Arkako show*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN, URTZI!

Ttakun ttakun haizeak darama, ttakun ttakun Meauxeko Guantnamora.
Ttakun ttakun muxu iraultzaile eta mabinada.
Maite zaitugu.



URTE ASKOAN

Manuela Lopetegui (Lizartza).
Gaur urteak betetzen ditu. Muxu bero bat denon partetik.



ZORIONAK

Aimar Artola (Abaltzisketa).
Gaur hiru urte. Aiton-amonen partetik muxu bana.

HITZA,
zorion agurren
tarte

Mesedez,
argazkia bi egun
lehenago ekarri.
Mila esker!

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea
TOLOSA
Udaletxeko bulegoa
LEITZA